

«Nahi bezain ongi ez»

Otermin igandeko proba ari da prestatzen ▶ 5



## Euskal jolasak landu dituzte Tolosa eta Ibarra ikasleak

**TOPAKETA** ▶ Ikaspilotak eraturako kirol topaketa izan dute; «pilota bezalako kirolak» sustatu nahi dituzte ▶ 6



Haurrek pilotaren modalitate desberdinak landu zituzten atzo Beotibar pilotalekuan. IÑIGO TERRADILLOS



JAIONE ASTIBIA

## Elurraren urteko lehen bisita izan da herrian

**LEITZA** ▶ Leitza eta Goizueta arteko errepidea itxita egon zen lurbiengatik; autobidetik desbideratu behar izan zuten trafikoa ▶ 7

**AMASA** ▶

Gazte Eguna eguraldi txarrari aurre eginez

Gaur San Martin eguna da ▶ 4

**TOLOSA** ▶

Webguneak euskaraz jartzeko diru laguntzak prest ditu Udalak

Hilaren 30a arte zabalik da eskaerak egiteko epea udaletxean ▶ 2



EUSKARA ▶

# Euskarazko webguneak diruz laguntzeko oinarriak, prest

Hilaren 30a arte zabalik da eskaerak egiteko epea; «bertako eta berezko hizkuntzak erabilera-esparru horretan leku oparoa izatea» da laguntzen xede

LEIRE MONTES

Euskarazko webguneak diruz laguntzak emateko oinarriak aurkeztu zituen atzo Udalak. Oinarri horiek, laguntzen nondik norakoak eta ekimenaren helburuak izan zituzten, besteak beste, hizpide Euskara eta Hezkuntza zinegotzi eta batzordeburu Onintza Lasak eta Iñaki Azaldegi Udaleko Euskara teknikariak.

Elkarte, erakunde edota norbanako eskatzaileen edukietatik abiatuta, webguneak sortu, eguneratu edo hobetzeko proiektuak dira Udalak diruz lagunduko dituenak.

Azaldegiren esanetan, «kultura, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta, oro har, publiko zabaleri interesgarri gerta dakizkiokeen informazioa eta edukiak, euskaraz, informazio teknologien bidez hedatzeko diruz laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea» da oinarrien helburua. Era berean, «publiko zabaleri interesgarria gertatzen zaion neurrian, erakunde eskatzaileari gastuak murriztea» dute xede diruz laguntzek.

Lasak, bestalde, Internetaren garrantzia azpimarratu zuen «euskaraz erabili, sustatu, zabaldu eta ezagutzeko emateko»: «Tresna horrek ematen dizkigun aukerak aprobetxatu egin behar ditugu, euskararen mesederako. Euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru horretan bertako eta berezko hizkuntzak leku oparoa izan dezan saiatu behar dugu denon artean».

Iazko deialdiak izan zuen erantzunarekin «kontent», aurrean ere parte-hartze handia es-



Ezker-eskuin, Iñaki Azaldegi eta Onintza Lasa, atzo. L.MONTES

pero dute Udak ordezkariak: «Webgune txukunak aztertu genituen iaz, euskararen alde lanean jarraitzeko erreferente. Ea aurten ere hala den».

Eskaerak aurkezteko epea zabalik da, hilaren 30a arte, Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentuan.

## Bete beharreko baldintzak.

- ▶ Proiektua edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek Tolosa izan behar dute egoitza sozial eta fiskala.
- ▶ Edukiak oso-oso erakundeez izan behar dute. Horrek ez du eragozten webgunea beste hizkuntzetan ere izatea.
- ▶ Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- ▶ Edukien barruan legean baxestutako gairik baldin bada-

go, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.

- ▶ Webgunea elikatzea: bisita kopurua, kalitatea zein erabilgarritasuna eguneratzea.
- ▶ Webgunea egina egon behar eskaera egiterako; eskaera orrian helbidea jarri behar da, Udalak ikuskatu ahal izateko.

## Baztertu egingo dituztenak.

- ▶ Webgune pertsonalak.
- ▶ Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- ▶ Edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.
- ▶ Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.
- ▶ Edukietara sartzeko edonolako muga jartzen dutenak edo zerbitzuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.
- ▶ Diruz laguntzak duen helbururako lehendik diruz laguntza jasotzen dutenak.

## Eskaerak aurkezteak.

- ▶ Eskaera inprimakia, egoki beteta, Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentura eraman edo helarazi behar da.
- ▶ Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak: gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo horien fotokopia konpultsatuta, diruz lagundutako jardueraren oroitza, eta diru-kontuen balantzea.

- ▶ Eskaerak aurkezteko epea hilaren 30ean, asteartea, amaituko da.

## Diruz laguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeko kontuan hartuko direnak.

- ▶ Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.
- ▶ Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.
- ▶ Maila eta era desberdinetako ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.
- ▶ Software askea erabiltzea.

## Balorazio batzordea.

- ▶ Honak hauek osatzen dute: Udaleko Informatika zerbitzuko teknikaria, Udaleko IKHA zerbitzuko teknikaria, eta Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko kideak.
- ▶ Kanpoko adituen iritzia ere eskatu ahal izango du Balorazio batzordeak.
- ▶ Ezarritako irizpideak aintzat hartuta, Balorazio batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Udaleko Gobernu Batzarriari, hark behin betiko erabakia har dezan.

## Diruz laguntzen zenbatekoa.

- ▶ 6.000 euroko diruz laguntza banatuko du oraingoz Udalak.
- ▶ Eskatzaile bakoitzari, gehien ere, webgunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren %50 emango zaio, 600 euroko muga gainditu gabe.
- ▶ Emandako diruz laguntzak, eskura ditzakeen beste diruz laguntzekin batera, ezingo du egindako inbertsioaren kopurua gainditu. Horretarako, beste laguntzarik jaso edo jaso ez izanaren aitortpena aurkeztu beharko du eskatzaileak.

## Diruz laguntzen ordainketa.

- ▶ Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituenari bi hilabeteko epean helaraziko zaio Gobernu Batzarrik ontzat jotako diruz laguntza.

## Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.

- ▶ Bi hilabeteko izango da, eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, eskatutakoa ukatu egingo dela ulertuko du Udalak.

BILERA ▶

## Tolosaldeko katekista taldearen bilera

Tolosaldeko katekisten eza-gupen taldeak bigarren saioa egingo du gaur arratsaldean. *Johariaren leihoa* izeneko etxeko lana taldean komentatu dute katekistek, eta proposamenak eman. Bi lekutan elkartuko dira: Tolosan, 15:30etik 17:00etara —saioa gaztelaniaz egingo dute—; eta Villabonan, 18:00etatik 19:30era —euskaraz—.

AURKEZPENA ▶

## Bihar 'Munduko ipuinak' saioa, Josu Iztuetaekin

Bihar, 18:00etan, *Munduko ipuinak* saioa izango da. Haur Liburutegian. Josu Iztueta bidaiari tolosarrak Nairobitarra autobusaren formako liburua eta mahai-jolasa aurkeztuko ditu bertan. Ondoren, diapositiba emandua, ipuin kontaketa eta mahai-jolas eta liburuen zozketa izango dira.

MUS TXAPELKETA ▶

## Mus txapelketa azkarra Beotibar pilotalekuan

Larunbat honetan 16:30ean IV. Mus Txapelketa Azkarra izango da Beotibar pilotalekuan. Fronton kafetegiak antolatuta. Jokuak lau erregeetatara, sei hamarretako 3 uestelera izango dira. Bikote bakoitzak 25 euro ordaindu behar du Fronton kafetegian, larunbateko 16:15erako. Irabazleek 1.200 euro eta opariak jasoko dituzte.

ARRANTZA ▶

## Beteranoen txapelketarako deia arrantzaleei

Tolosako Arrantzaleak elkarteak antolatuta, Beteranoen Gipuzkoako Arrantza Txapelketa jokatu dute igande honetan, hilaren 14a. 60 urte-tik gorako arrantzaleak hartu ahal izango dute parte txapelketa horretan. Gaur da izena emateko azken eguna; interesa duenak 19:00etan Tolosako Arrantzaleak-en egoitzan agertu besterik ez du (Soldadu kalea).

**IRURAKO UDALA**  
IRAGARKIA

Alkatezta honek 2004ko azaroaren 2an emandako dekretuaren bidez, Irurako Hirigintza Planeamenduzko Arau Subsidarioetako 20 zona (Laskibar) hirizatzeko proiektuari haserako onarpena eman zaio, Promociones Kiset S.L.ek sustatuta.

Hori dela eta, jendaurreko informaziorako gai ezartzen da 15 laneguneko egongo da iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko biharamunetik aurrera. Epe hortan, espeditentza aztertu eta dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Iurra, 2004ko urriaren 28a  
Marimi Ugalde Zabala • ALKATEA

**IRURAKO UDALA**  
IRAGARKIA

Irurako Udak honen Osoko Bilkurak 2004ko urriaren 26an egindako batzaraldian, Irurako Planeamenduzko Arau Subsidarioetako 20 zonaldean (Laskibar) Arauen 6. aldetari haserako onarpena eman zaio, udal honetara sustatuta.

Hori dela eta, espeditentza, jendaurreko informaziorako ezarritako Udak honetako Idazkaritzan, Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, Aipatu epe horretan, espeditentza, aztertu nahi duen edozeinen eskuragarri egongo da eta dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Iurra, 2004ko azaroaren 9a  
Marimi Ugalde Zabala • ALKATEA

KULTURA ▶

## Musika, jaia eta zinema asteburuan Bonberenean

Gaur Señor No eta NCC izango dira; bihar Aragoi Eguna eta etzi zine-kluba

I. ETXEBESTE

Bonbereneako kideek askotariko ekitaldiak antolatuta dituzte azarorako. Musika emanaldiak izango dira asteburuetak ardatz, eta horrez gain, zine-klubeko saioak ere prestatu nahi izan dituzte. Gaur, esaterako, Señor No eta NCC (Nuevo Catecismo Católico) taldeen kontzertua izango da 22:30etik aurrera Bonbereneako kontzertu gelan, eta etzi zinema saioa izango da leku berean: arratsaldean, 19:00etik aurrera *Edd Wodd* filma eskainiko dute Bonbereneako kideek. Abendua bitarte igandero izango da zine-kluba haiek adierazitakoaren arabera. Esaterako, datorren igandean *Bufo 66* filma eskainiko dute, eta *La guerra de los mundos* eta *Garganta profunda* izango dira azaroko gainerako emanaldiak.

### Aragoi Eguna, bihar

Musika eta zinema aukerez gain, festarako parada ere ematen dute Bonbereneako kideek astebururako. Izan ere, Aragoi Eguna ospatuko dute bihar gauean. Antolatzaleek esan dutenez, 5 euro ordaindu beharko dira jai horretara sartu ahal izateko, eta sarrera ordaintzen dutenean, horrekin batera lukainka pintxo eta ardoa banatuko diete herritarrei. 22:30ak inguruan hasiko omen da Aragoi Eguneko festa, eta orduan ere musika emanaldiak izango dira, antza, nagusi.

Gaur iluntzean Irungo Orkatz tabernan ariko den Peloplumas taldeak kontzertua eskainiko du bihar Bonberenean, eta talde horren aurretik jardungo du Sonic Revolution-ek. Diaspora Mañak aurkeztutako ekimena da.

GAZTERIA ▶



Tolosako Udaleko Gazteria saileko eta Gazte Topaguneko ordezkariek, atzo, ekimenak aurkezterakoan. I. E.

## Gazteen topalekuari azken zertzeladak

Bihar inauguratuko dute Kultur Etxean; Umeen Gabonetako Parkea Beotibarren izango da aurten, «txoko didaktikoekin»

IRATXE ETXEBESTE

Lehenago asteen aurkeztu zituzten Tolosako Udaleko Gazteria Saileko eta Tolosako Gazte Topaguneko ordezkariek etzi zabalduko duten gazte topaleku berriaren nondik norakoak, eta atzo zehaztu zituzten Udaleko zinegotziek, teknikariek eta gazte topaleku berriaren jardungo duten hezitzaileek bertan eskainiko dituzten ekimenak zer nolakoak izango diren, bai eta nori zuzenduta egongo diren ere.

«Herriko gaztetxoei aisialdi eskaintza ona aurkeztearren», asteburuero zabalduko dute Gazte Topaguneko kideek Kultur Etxeko azpialdean jarri duten gela. Askotariko ekimenak izango dira larunbat eta igandean arratsaldetan 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat, eta ekitaldi horiek prestatzearen helburua «gazteek herritik atera beharrik gabe zer egina edukitzea» dela esan du Tolosako Udaleko Gazteria zinegotzi Itxaropena Urkiolak: «Horixe lortu behar dugu denon artean: gazteei haiek atsegin dituzten ekimenak eskuartearen jartzea; ea gai izaten garen».

Asteburuetak behin-behinek egitaraua zehaztuta dute hezitzaileek honezkerok, baina topaleku berrira joaten diren gazteen iritziak eta iradokizunak jaso nahi dituzte, «azken batean haiek direlako zer egin nahi duten esan behar dutenak». Asteburuetak antolatutako ekimenak ondo joanez gero asteen zehar ere antolatuko dituzte ekintzak hezitzaileek: Gabonetan, adibidez.

### Parkea, Beotibarren

Horren harira, aurtengo Eguerberietarako plangintza berria egin dutela diote udal ordezkariek. Orain arte Ferialekuan jartzen zuten Umeentzako Gabonetako Parkea Beotibar pilotalekuan jarriko dute aurten. Abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra izango da zabalik, eta ohiko «barraka pasiboek» gain, besteak beste, ipuin kontalariak, antzerki emanaldiak... Urkiolaren esanetan, «txoko didaktikoagoak» jarriko dituzte Gabonetako parkean hala haurrentzat nola gurasoentzat. Izan ere, haurrek jolas egiten duten bitartean «garrantzitsua

da gurasoek kafetegian egoteko aukera izatea, eta baita haur jaioberriak aldatzeko leku egokia izatea ere».

Haurrei zuzendutako ekitaldiak ez dira, baina, Gabonetako bakarrak izango. Nerabeentzat Disko Top-a edo alkoholik gabeko festa antolatzeko asmoa du Udalak pare bat egunetan. Oraindik zehazteko dituzte egunak, baina Eguberrietako oporraldiaren baitan izango direla jakin badakite. Gazte Astea ere antolatu nahi dute udal arduradunek egun horietan, eta askotariko lehiaketak izango dituzte gaztetxoek aukeran: haiek egindako txotxongilo lehiaketa, kirolariekin harremantzeko txapelketa...

Bihar gazte topalekua inauguratzen dutenetik zehatzago azalduko dituzte antolatzaleek asteburuetak ekimenak. Orduan jakingo dute, halaber, gazteek zer jarrera hartzen duten proiektu berriaren aurrean. «Ordura arte ezingo dugu jakin zenbat lagun etorriko diren eta zer asmo duten». Informazioa, behintzat, badute topalekuaren gainean, eta «gehienak ilusioarekin ikusten ditugu». Ea bada.

ZINE-KLUBA ▶

## ‘Zaman, l’homme des roseaux’ filma ikusgai gaur

Leidor zinema aretoan eskainiko dute Amer Alwan zuzendariaren lana 21:30ean hasita

I. ETXEBESTE

*Zaman, l’homme des roseaux* (Zaman, ihien gizona) filma eskainiko dute gaur zineklubaren arduradunek Leidor zinema aretoan 21:30ean hasita. Frantzia eta Irak artean egin zituen filmeko zuzendari Amer Alwanek iaz grabaketa lanak, eta 2004ko apirilaren 30ean estreinatua zen.

Iraken bizi dira Zaman eta bere emaztea. Bertako aintzira batean ezagutu zuten elkar, eta ihiz egindako etxean jarri ziren bizitzan. Gerratearen ondorioz emazteak gaitasun arroso bat duela jakiten du Zamanek, eta medikuari gaixotasunaren berri galdetzean hirira, sendagai bila joateko esaten dio hark. Tigris ibaia zeharkatu behar du Zamanek hirira heltzeko, eta ibaiertzetatiko jendearen bizimoduaz ezagutzeko aukera du, hala: Irakeko antzinako eta egungo historiaren lekuko bilakatzen da. Halako batean sendagaiak lortzen ditu Zamanek. Pozik itzultzen da etxera, eta bere emaztea ere poztu egiten da berriz ere Zaman ikusteaz. Dena dela, hitz gutxi batzuk baino ezingo dizkiote esan elkarri.

Horixe da, gutxi gorabehera, filmearren sinopsia. Amer Alwanek zuzendutako lehen film luzea izan arren, aurretik hainbat film labur eta dokumental ekoiztu izan du, betiere Irakeko egoera ardatz hartuta. 2003an, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten, Zabaltegi saileko zinema zuzendari berrien atalaren baitan, eta etorkizuneko talentu berriari Singnisi saria jaso zuen Alwanek. Gerra aurretik grabatu zuten filma, eta duela hamabost urtetik Iraken grabatzen den lehen filma da; 78 minutu irauten dituena.

**HITZA, eskualdeko plaza** 661 678 818  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta Toki aproposa iragartzeko

AMASA ▶ SAN MARTIN JAIK

# Gazte Eguna, euripean

Goizean oilasko eske ibili ziren atzo eta arratsaldean soka-dantza eta erromeria izan zituzten; gaur, San Martin Eguna



Soka-dantzaren harira, parte-hartzaileek egindako desafioa. HITZA

IMANOL GARCIA

Gazteen Eguna egin zuten atzo amasatarrek, San Martin jaien barruan. Goizean goiz elkartu ondoren, eguraldi txarrari aurre egin zioten eta baserri berriri ibili ziren oilasko eske erromerian. Bi taldetan banatu ziren, horietako bat goialdeko baserrietara inguratu zen eta bestea, berriz, herriko beheko aldera.

Erromerian ibili ondoren,

bazkaltzeko bildu ziren Uxo Toki elkartean. Bertan giro alaian oparo jan eta edan zuten elkartutako berrogeita hamar bat lagunek. Izan ere, egun berezia izaten da Amasako gazteentzat eta ia herriko guztiak biltzen dira egun honetan. Ikasleak direnak ez dira azaltzen ikasgeletara egun horretan eta lanean ari direnak jai eskatzen dute lantegietan.

Bazkaldu ondoren, atertu egin zuten eta plazan egin zuten

## GAUR ▶

### San Martin Eguna.

10:30. Meza nagusia.

11:30. Herri kirolak: astoa eta gizonak elkarren aurka. Jarraian bertsolariak: Larrañaga eta Irazu, eta trikitilariak: Larrañaga eta Zabale.

18:00. Amasako X. Pala Txapelketaren finala. Jarraian eskuzko pilota partida. Gero bertsolarien eta trikitilarien bigarren saioa.

azkenean soka-dantza. Aurten neskei egokitu zaie dantza egitea. Ondoren erromeria egin zuten eta eguna bukatzeko Arantzabi jatetxera joan ziren afaltzera.

Gaur jaien egun nagusia ospatzen da eta ikusteko dago goizean antolatutako den herri kirol proba bitxian zein aterako den garaile: astoa edo sei gazte osatutako taldea. Ondoren izango diren bertsolariak seguruz abestuko dizkiete koplak.

## ANOETA ▶

### Soka-dantzan parte hartzeko deia

Anoetarrok Auzolanean-ek soka-dantza berreskuratu nahi du. «Ezker abertzaleko apustua da horrelako ekimenak aurrera ateratzea, oraingo udal batzordeak ez baititu antolatuta», esan dute. Itzuli tabernan daude izen-emateko zerrendak, eta lehen bilera bihar egingo dute, 19:30ean, udaletxean; entseguak noiz egin zehaztuko da bertan. Anoetako Gazte Asanbladarekin elkarlanean antolatzen ari dira soka-dantza eta gazte ugari eman du izena. Helduei dei berezia egiten die parte hartu dezaten. Soka-dantza datorren Kalderero Egunean egingo da, hau da, urtarrilaren 29an.



Soka-dantza, 2003an. HITZA

## ANOETA ▶

### Mahai jokoan partiden hasiera gaur Alkartasunan

Gaur hasiko dira Alkartasuna Biltokian mahai jokoak. 18:00etan txintxon eta puntu jokoan partidak izango dira. Bihar, musa lau erregetara, tutea eta dominoko partidak egingo dira, 18:00etan. Etzi, 18:00etan ere, sari bana-keta izango da eta ondoren gaztaina erre jatea.

## VILLABONA ▶

### Behar-Zan mus eta tute txapelketan

Behar-Zana kirol elkarteko mus eta tute txapelketan izena emateko zerrendak irekita daude jada. Interesa duenak bihar du azken eguna, tutea eta dominoko partidak egingo dira, 18:00etan. Etzi, 18:00etan ere, sari bana-keta izango da eta ondoren gaztaina erre jatea.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

### ETXEBIZITZAK

**Aia.** Naturaren erdian, bi logelako apartamendu berriak, garajearekin, eta duplex etxebizitza garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** Etxebizitza, 75 m<sup>2</sup>, bi logela, 23.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** Hiru gelako etxabea. 12.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Corella.** Etxe atxiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m<sup>2</sup>-ko terenoarekin. Pizina eta guzti.

Eta gainera batzuk tximeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Errazu** eta Goizuetan bordak. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Polita. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean, 3 logelako etxebizitza, baratzarekin. 22.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Argindegi auzoan, 3 logelako etxebizitza, berogailuarekin eta altzariz guztiz hornitua. 27.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Jaca.** 110m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 4 logela, trasteleku eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Lerin.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berriak, 25 m<sup>2</sup>-ko portxearekin, ura eta argia jarriak eta 3.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, bainugela, sarrerak eta igogailuarekin. 29.870.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia bakarrekok. Eraikitako azalera: 242 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin.

Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai. 15 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin, teilatu berritua, berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Larramendi kalean 65 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldea altzariez hornitua, kanpoaldera begira, 2 logela, igogailua eta trasteleku. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foru Ibilbidean, leku hobereanean, erabat kanpokaldera, atikoa, 85 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup>-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailua. 68.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen ibiltokian 210 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 5 logela, berogailua, igogailua eta 2 bainugela. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko txokoa, 10.000.000 pta, tartelant. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurren, txalata bi lorategiarekin, 3 logela, bizitzera sartzeko. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean etxebizitza, 210 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foruen ibiltokia, erabat berritutako etxebizitza, 2 bainugela, igogailua, egongela, 3 logela, sukaldea eta gela bat bulegorako erabilgarria. 130 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean bizitzera sartzeko berritutako apartamendua. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, 2 gelako etxebizitza, polita, sartzeko prest, 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, bi logela, berogailuarekin. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Amaro auzoan, etxebizitza salgai 80 m<sup>2</sup>rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Txarama.** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 3 logela, altzariz hornitutako sukaldea, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Etxebizitza berria 80 m<sup>2</sup>, garajea eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Etxebizitza 60 m<sup>2</sup>, bi logela, bainugela eta sukaldea. 23.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Kale Nagusian 78 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, berritutako. 3 logela,

altzariz hornitutako sukaldea eta egongelarekin. 25.800.000 pta.

### NEGOZIOAK

**Sagardotegiak.** Funtzionamenduan dauden sagardotegi batzuk salgai, Usurbil eta Oartzun inguruetan, etxebizitza eta guzti. Mandio. 669 87 19 09.

### LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabiloi berria, ate bikoitzearekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

### LURSAILAK

**Nekazaritzarako.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.

JOXE MANUEL OTERMIN ▶ KORRIKALARIA

# «Datorren astetik aurrera betikoak ariko gara Berazubín bueltaka»

Igandean, azaroaren 14ean, izango den Behobiako lasterketan izango da 'Mañu' Otermin amezketarra; bere burua ez du «nahi bezain ongi ikusten»



O. ESKITXABEL

**OLAIA ESKITXABEL**

Lasterketetan ohiko aurpegia izaten da Joxe Manuel Otermin, Mañu, amezketarrarena. Lehenengo postuetan sailkatzen daen eskualdeko korrikalarietako bat da. Korrika ezezik, mendian, bizikletan... ere ibil-

ten da. Izatez, mugitua; geldirik egon ezin duen horietakoa da hogeitahemezortzi urteko gaztea. Iputarin hitzak egoki definitzen du amezketarra.

**Igandean Behobia-Donostia-ko lasterketan izango zara. Indarrean aurkitzen al zara?**  
Ez dut nire burua nahi bezain

ongi ikusten; aurten, Aizkorriko maratokia egin dut eta forma pasata nagoela somatzen dut. Ez nago hain fin. Laz, istripu bat tarteko, ezin izan nuen Behobian parte hartu eta aurten ikaragarrikoa gogoa daukat.

**Baina ez da parte hartzen duzun lehenengo aldia, ezta?**

Aurtengoarekin, Behobiako lasterketan ateratzen naizen zarpigarren urtea beteko dut; aurrekoetan, ordubete eta zortzi minutuko denbora egin dut; sailkapen orokorrean lortutako denborarik hoberena hogeita bosgarrena izan da.

**Zer du Behobiako lasterketak besteek ez dutena?**

Oso giro polita egoten da eta jende ugari gerturatzen da animatzera.

**Gogorra al da?**

Gogorrena Pasaiaitik Miracruz bitarteko zatia izaten da; azken kilometroak izaten dira eta aldapa gogorra egiten da. Jende gutxi egoten da. Gainera.

**Behobiarako prestaketa berezia egiten al duzu?**

Urte guztian zehar ibiltzen naiz korrika, baina Behobiako lasterketarako entrenamendu gogorragoa egiten dut. Bi hilabete lehenago hasten naiz prestatzen eta ohi baino kilometro gehiago eta erritmo biziagoan egiten ditut.

**Igandera bitarte, egun haue-tan, deskantsatu egiten al duzu?**

Gaur korrika saioa egingo dut baina bihar deskantsu hartuko dut. Etzi, ordu erdi inguru ariko naiz.

**Non egiten dituzu entrenamenduak?**

Amezketan inguruan (Orendain, Abaltzisketa...) edo Berazubín zelaian.

**Behobiarako prestatzen jende asko ikusten al duzu?**

Urteroko gauza izaten da; lasterketa izan baino hilabete batzuk lehenago jende pila bat inguratzen da Berazubira. Datorren astetik aurrera, berriro ere betikoak ibiliko gara bueltaka.

**Euria eta hotza ala beroa nahiago?**

Nahiago dut hotza egitea hego haizea egitea baino; gorputzak hobeto erantzuten du. Korrika egiten hasiz gero, berehala berotzen da bat. Pena da; Behobiarako prestatzeko sekulako paliza hartzen dute eta gero erabat uzten dute. Hori ez da ona gorputzarentzat; konstantzi bat mantendu behar dela pentsatzen dut.

**Korrikarekin batera, mendia da duzun beste zaletasunetako bat.**

Aconcagua, Himalaya... igo ditut. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, baretu egin naiz; baina mendia asko gustatzen zait.

**Aurten, lehen esan duzunez, Aizkorriko mendi lasterketan parte hartu duzu; zer nolako esperientzia izan da?**

Oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin; 5. postua lortu nuen. Jendeak aurkakoa pentsatu arren, nire ustez, mendian korri egiteak erriedean egiteak baino gutxiago eragiten diete muskuluei.

**Korrika egiteaz nazkatzean beste kiroletara jotzen duzun horietakoa omen zara.**

Horrela da. Behobia egin ondoren, esaterako, Eguberriak arte atsedena hartuko dut. Baina, hori bai, ohiturari jarraituz, urtea, goizean goiz Txindokira igoz hasiko dut.

**AMEZKETA ▶**

## Ekitaldi ugari San Martin Eguna dela-eta

San Martin Eguna indartu nahian ekitaldi ugari antolatu ditu gaurko Udalak. 11:00etan, meza nagusia izango da, eta, ondoren, bazkaria Behartzana jatetxean. Bietan, Mañukorta eta Mendizabal bertsolarien konpainiaz gozatzeko aukera zango dute amezketarrek. Trikitilariak ere izango dira bazkarian; Xapre eta bere laguntzailea, hain zuzen ere. Arratsaldean, 16:30ak aldera, haurrak herria trenez zeharkatzeko aukera izango dute. Ondoren, bai haurrentzako eta bai adinekoentzako txokolate-jatea egingo da goiko plazan (Zumadi eskolaren ondoan).

**BALIARRAIN ▶**

## Osasuntsu bizitzeko gomendioak

Bizimodu osasuntsuago bat eramateko hainbat gomendio emango ditu Moira Zeburiok Baliarraingo kultur gelan egingo den hitzaldian. Kultur Elejiraren barnean antolatutako hitzaldia da eta 20:00etan hasiko da.

**ALTZO ▶**

## KZguneko tutorea arratsalde datorren astetik

Azaroaren 2tik gaur bitartegoz egon da Altzoko KZguneko tutorea. Astelehenetik, azaroaren 15etik 26ra bitarte, berriz, arratsaldeko ordu-tegia izango du; 16.00etatik 20.00etara izango da KZgunean. Udaletxea edota liburategia irekita dagoen ordu-tegian ordenagailuak erabiltzeko aukera izango dute altzotarrek.

**ALEGIKO UDALA**

**LAN KONTRATAZIOAK 6 HILABETERAKO**

- Kultur dinamizatzailea
- Alegiko Kultur eta Kirol etxerako garbitzaile-atezaina

Aurkezteko epea; 2004-11-09 arte.  
Informazioa: Udal bulegoetan • Ordutegia: 9:00 - 14:00

**LIZARBI**

Kutxa, mahai, aulki etab.  
Altzariak • Zurgintza orokorra  
Tailakesuz eginak Zaharkinen berriztatzea

San Esteban azoia  
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

lea-Artibai eta mutrikuko **hitza**  
**1. URTEBETETZEA**

**LA KINKY BEAT**  
KONTZERTUAN

azaroaren 12an,  
22:30ean  
**ONDARROAN**

sarrerak  
aurreriaz: 6 euro  
takilan: 8 euro  
Zenbat Gara lagunak  
edo Hitza karnelagaz: 4 euro

**Kafe ZOKIA**

## BERASTEGI ▶

## Gaur hasi eta datorren asterarte, Kultur Astea

Hitzaldiak, ipuin kontaketak, irteerak eta musika izango dira besteak beste

## I.TERRADILLOS

Gaur hasiko da Berastegin Kultur Astea, eta datorren astebururarte hainbat ekitaldi prestatu dituzte

Hasteko, gaur 20:30ean *Landare eta baratzagintza-zen ezagupenetan sakontzen* izenarekin hitzaldia izango da Muñagorri herri eskolako gimnasioan. Hitzaldi honetan Jakoba Rekondok emango ditu azalpenak.

Gainontzeko egunetan adin eta mota guztietako ekitaldiak prestatu dituzte.

Asteburu honetan adibidez, garrantzi berezia izango du plazaolako burdinolak. Batetik, bihar hitzaldia izango da *Plazaolako burdinola eta kultur ondarearen berreskurapen ezberdinak* izenburupean Juanxo Agirrerren eskutik. Eta igandean, azaroaren 14an, Plazaola eta Bizkotx-era mendi irteera antolatuta dute ingurunea ezagutzeko.

Garrantzi berezia izango duen beste ekitaldia igandean hasiko den argazki rallya izango da. Adin guztietara irekia egongo da lehiaketa eta argazkigintza gogoko duen herritar orok parte hartzeko aukera izango du. Argazki rally honetan ohiko kamerak erabili ahalako dira soilik, beraz ez dira kamera digitalak onartuko eta bertan banatuko diren karreteak 12 argazkiz osaturik egongo dira. Behin argazki guztiak eginda, argazkilariak hiru aukeratu dituzte lehiaketarako eta irabazlearen izena azaroaren 21ean jakin araziko da, Azokaren egunean.

Ipuin kontaketa, antzerkiak, txotxongiloak, hitzaldiak eta musikak osatuko dute egitaraua.

Azken eguna azaroaren 21ean izango da. Egun honetan azoka berezia egingo da bertako produktu eta eskulaneekin. Azoka honen baitan, gazta lehiaketa ere egingo da. Kultur Astearekin amaitzeko, aipaturiko argazki rallyko irabazleei eta gazta lehiaketako irabazleei sari banaketa egingo zaie.

## KIROLAK ▶



Ederki igaro zuten atzoko goiza Tolosa eta Ibarako eskoletako ikasleek. IÑIGO TERRADILLOS

## Pilotarekin giro polita gaztetxoan artean

Tolosa eta Ibarako eskoletako ikasleak Ikaspilotak antolaturiko topaketan aritu ziren atzo goizean

## IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa eta Ibarako eskoletako ikasleek gozatu ederra hartu zuten Kutzak antolaturiko eta Ikaspilotak sustaturiko topaketa berezian.

Euskal jolasak landu zituzten Tolosako Samaniego eta Laskorain ikastetxeetakoek, Anoetako ikastolakoek, Ibarako Uzturpe ikastolakoek eta Berastegiko Muñagorri eskolakoek. LH 5. mailako ikasleak bildu ziren goizean goizetik Tolosako Beotibar pilotalekuan eta Uzturpe pilotalekuan.

Bi zatitan banatu zuten Ikaspilotakoek topaketa; lehenengo zatian gaztetxoak jolas ezberdinetan aritu ziren, guztiak ere pilotarekin zerikusia zutenak. Horrela, kiniela palaz, erdian biok eta txokotan ikusia ahal izan ziren bi pilotalekuetan.

Bigarren zatian, berriz, ikasleek proba puntuagarriak izan zituzten, aurrerago egingo den gipuzkoako finalerako giltza lortzeko.

Ikaspilotako antolatzaileak oso gustura daude lortutako emaitzekin, eta batez ere, ikas-

leek ederki pasatzen dutelako goiza topaketa hauetan. Eta beraien helburua betetzen dela aipatzen dute; pilotaren inguruko jokoekin, modalitate ezberdinak ezagutzen eta landitzen dituzte eta honetaz gain, eskola desberdinetako ikaslearen arteko harremana areagotzea bultzatu nahi dute, euskal kulturaren transmisioa bultzatzu.

Azken batean, giro polita sortu zen, bi pilotalekuetan; eskola ezberdinak elkartu, haurrek pilotaz gozatu, eta une dibertigarriak izan zituzten.

## MANEX BERISTAIN ETA ALAITZ BADIOLA ▶ TEKNIKARIAK

## «Aisialdian pilota bezalako kirolak egitea bultzatu nahi dugu»

Orain dela hamar urte hasi ziren Ikaspilotakoak Kutzaren laguntzarekin ikasleek artean topaketan antolatzen euskal pilota sustatzeko eta horren inguruan giro polita sortzeko. Manex Beristain-ek eskarmen-tu handia du topaketa hauen inguruan eta baita Alaitz Badiola laguntzaileak ere.

### Zer da topaketa hauekin ortzen dena?

Gaztetxoek pilotaren eta pilotarekin zerikusia duenaren inguruan ikastea eta ikaslearen arteko harremana sendotzea izaten dugu helburu bezala, eta lortzen dela uste dugu.



IÑIGO TERRADILLOS

### Haurrak oso gustura aritzen dira.

Ederki pasatzen dute, eta aisialdian ere horrelakoak egitea bultzatu nahi dugu eta ez bakarrik jokoak.

### Nola ikusten duzue gazteen artean euskal pilota gaur egun?

Orohar, goruntz doala iruditzen zaigu. Bestalde, harrিতa geratu gara neskekin, gogotsu aritzen direlako agian bestelako aukerarik ez dutelako kirol hau egiteko, eta gainera, maila handi dutela konturatu gara. Gure kasuan, neska-mutil taldeak eratzeko da garrantzitsua.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Etxebeste J.M., Gernikako arbolaren 3, Tolosa. 943651040  
Gimeno A., Elbarren 52, (Leitza). 112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aiz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Ileapaintzailea.** Zute ileapaindegiak esperientzia handia duen neska edo mutila behar du. Asteartetik ostiralera 10:00etatik 18:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. 943 67 19 34.  
**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.

## SALGAI

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.  
**Apartamentua.** Anoetako plaza apartamentua salgai. Guztiz berritua. Berokuntza sistema eta gasarekin. 615 76 77 64.

LEITZA ▶ INGURUMENA

# Mendi kaskoak zuritu ditu, aurtengo neguan aurreneko aldiz

Leitza eta Goizueta arteko errepidea itxita egon da, azken gauetan egin dituen euriteek eragindako lurjauziengatik



Aurtengo neguko aurreneko elurra, oraindik udatzena bukatzekoa dagoela iritsi da. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Atzo goizean mendi kaskoak zuri agertu ziren Leitzaldean, aurtengo negua ere ate joka dela oiroitaraziz edo.

Herriguneetan ez zuen elurrik ezarri, baina inguruetakoa mendietan bai, ordea; baserri-rik altuenetan ere belatso eta inguruko larreen itxura negu gorrikoa zen. Leku garai horietan elur jakak noiznahi egin zituen, kazkabarrarekin nahaste. Behealdean, berriz, herri inguruetan, eguerdi partean jasaska egin bazuen ere, ez zuen ezarri. Hori bai, kazkabarra bizkor botatzen zuen.

Hala, aurtengo lehendabiziko elurra agertu da, kasualitatez, agian, baina ilargiaren aldaketa egunetan sartuta ego-

nik —bihar ilberritzen da— izan da hori. Horrela, iazko neguan, urrian hasi eta ilberri guztietan egin zuen elurra, maiatza arte. Aurten,aldi bat beranduago hasi da. Baina hala ere izanen da makina bat aukera elurraz gozatzeko ar-rrerantzean, batzuentzat; bes-teentzat, nahiko negu luzea jo-anen da, dagoeneko hasi gabe ere, batez ere nekazalkoan ari-zen direnentzat.

## 70 litro ur

Edozein moduz, egun hauetarako meteorologia zentruak egindako iragarpenak betetzen ari dira: hotza eta euria, eta elurra. Elurra, atzo goizean egiaztatua ahal izan zen. Eta gainerakoak, berriz, gure zonal-

dean dagoen datu bilketarako zentro ttikian galdetu eta HITZARI eman dizkiote. Horrela, herenegun goizean, prezipitazioa 49 litrokoa izan zen, eta atzo goizean, berriz, 70 litrokoa. «Atzokoa [asteartekoaz] kantitate arrunta da paraje hauetan. Baina gaur goizean [atzokoa] jaso duguna, urtean lauzpabost egunetan bakarra izaten da. Hori asko samar da», zioen Isabel Zabaletak. Hotzberoari dagokionez, berriz, maximoak ez zuen 9°C-tako arrastoa igaro bi egunetan; minimoa, ordea, 7°C-tatik, 4°C-tan ere egon zen atzokoa.

Inguruetakoa errekei begiratzeari fidagarri izan daiteke hori egiaztatzeko, izan ere, ia ahortuan zeuden errekek, iturri asko desagertuta zeuden



Errepidea, elurragatik ez baino, lurjauziagatik itxi zen. J. ASTIBIA



Luisen Bordako gunetxea. J. A.

dagoeneko, beren ohiko itxura berreskuratutxeko baitute, gaur hauetako euriteei esker.

Duela 21 urtez gero, Leitzako Luisen Bordan jasotzen dituzte gure eskualdeko datu meteorologikoak zentruetara igortzeko: temperatura maximo eta minimoa, hezetasuna, prezipitazio kantitatea... Eguneroko datuak biltzeaz, ordu bere-tsuari egin behar den lana, gainera, Pakita Gogortza eta Isabel Zabaleta, Luisen Borda baserrikoak, arduratzen dira.

## Errepidea itxita

Atzokoa egin zituen 70 litro euri horiek, ordea, mesede haina kalte ere eragin zuten inguruko errepideetan. Nonahi urputuak ageri ziren. Baina arazorik larriena Leitza eta Goizueta arteko errepidean jazo zen, NA-4.150-ean, Foruzaingotik HITZAK jaso zituen datuen arabera betiere, goizean goize-rako, Leitzako Kaxetatik hiru bat kilometrorra, sekulako lur jauzia gertatu zen, errepidea alden beste gurutzatuz eta itxita geldituz, «ziurraski gauetan egin duen euriaren ondorioz», azaldu zuten. Arratsalderako jarri zuten berriz ere ibiltzeko moduan.

Bitartean, batetik bestera errepide horretan zehar ibiltzen direnak, eskolako irakasleak, hango eta hemengo industrietako langileak esate baterako, Hernanitik barrena egin behar izan zuten ibilbidea.

Kontuak kontu, negua iritsi da. Baina gaur, lekuten, txerri batzuei beren sanmartina ere iritsiko zitzaien eta beldur gutxi!

# www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

## zorion agurrak bertan:



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 11, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokieta, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Baliarrain, Belaurtza, Berasteg, Elduain, Herrialde, Iruña, Iruña, Larradi, Lezaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizuri.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**EURO**

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Salla

**EURO**

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **12** hotzena **10**

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Anoetarrak Auzolanean-en batzarra udaletxean 19:00etan.

**Baliarrain.** *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsuaren giltzarriak* hitzaldia 20:00etan. Kultur Astearen baitan.

**Berastegi.** Jakoba Rekondoren hitzaldia 20:30ean: *Landare eta baratzaingintzaren ezagupenetan sakontzen.* Muñagorri eskolako gimnasioan. Kultur Astearen barruan.

**Elduain.** Afaria bihar 21:00etan Urdelar biltokian Euskal Zikloaz hitz egiteko. Ezker abertzaleak antolatuta.

**Iruña.** *Zahartzaroko gaixotasunak, prebentzioa* hitzaldia. Zaharren biltokian 17:30ean eta ondoren gaztain jatea.

**Tolosa.** *Finantza-entitateekin negoziatu* hitzaldia merkatarientzat, Igarondok antolatuta. 20:15ean Kultur Etxean.

**Tolosa-Villabona.** Katekisten ezagupen taldearen bigarren saioa: Johariaren leihoa etxeko lana taldean bildu eta osatu. Tolosan 15:30etik 17:00etara (gaztelaniaz) eta Villabonan 18:00etatik 19:30era (euskaraz)

**Villabona.** Hitzaldia: *Familia eta ikasleen arteko agresibitatea.* 18:00etan Gurea zinemako erakusgelan. Ernioabeako Guraso Elkarteak antolatuta.

### ZINE-KLUBAK

**Ibarra.** *Al sur de Granada.* Gaztetxean 21:45ean.

**Tolosa.** *Zaman, el hombre de los juncos.* Leidorren 21:30ean.

## ZORION AGURRAK ▶

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!



Afal aurreko parodian, lepoa moztu zioten lapurrari. HITZA



Haurrek ere parte hartu zuten Erdi Aroko festan. HITZA

# Erdi Aroan girotuta

**OREXA ▶ Afari berezia egin zuten Kultur Hamabostaldia bukatzeko Orexan; 120 lagun elkartu ziren, horietako asko Erdi Aroko jantziekin mozzorrotuta**



Giro ederra jarri zuten mozzorrotutakoek afari osoan zehar; txarroetatik edan zuten. HITZA

### ERREDAKZIOA

**E**rdi Aroan girotutako afa-riarekin amaitu zen larunbatean Orexako Kultur Hamabostaldia. Adin guztietako 120 lagun elkartu ziren afarian, horietako asko —«erdiak edo, uste baino gehiago», diote antolatzaileek— mozzorrotuta joan ziren. Aurretik, errege-erreginak, goardia eta lapurraren arteko parodia egin zuten.

Salda, arrautz gogortua, mondejua, olaskoa eta sagar errea izan zuten menua. Dena eskuakin jateko modukoa, Erdi Aroan bezala. Edateko ere txarroak erebili zituzten. Jangela lastoz hornitu zuten, giroan sartzeko.

Afarian zehar trikitilarien musika ez zen faltatu izan eta afalondoren Jokin Sorozabal bertsolariak eta bere lagunak eskale koplak eskaini zituzteten bildutakoek.

«Gustura» agertu dira antolatzaileak Kultur Hamabostaldia izan duen harrerarekin.



Adin guztietako jendea bildu zen larunbateko afarian. HITZA



Jokin Sorozabalek eta lagunak eskale koplak eskaini zituzten. HITZA